# Aitagurea errezatzea koronabirus aldian

Aitagurea otoitz laburra da. Jesusek bere jarraitzaileei ondaretzat utzi zien bakarra. Otoitz bitxia da. Kristau guztiek errezatzen dute, baina ez du Kristori buruz hitz egiten. Eliza guztietan errezatzen da, baina ez da inongo elizarik aipatzen. Katolikoek igandeko mezetan esaten dute, baina ez du hitz erdi bat esaten inolako erlijiori buruz. J.D. Crossanek dioen bezala, “otoitz iraultzailea da, historiaren ikuspegi berria aldarrikatzen duena. Errotikako adierazpena eta itxaropen-ereserkia da, lur guztiari zuzendutako hizkeran esana”.

**GURE AITA ZERUETAN ZARENA**

Zu zara gure Aita, gogoan izan guztiok garela zure alabak eta semeak.
Guztiona zarelako zaude zeruetan. Ez zaude inongo tenpluri lotuta, ez lurreko inongo leku santuri. Ez zara herri batena ez arraza pribilegiatu batena. Ez zara inongo erlijiorena. Ez zara onena bakarrik. Guztiok dei zaitzakegu Aita gisa.

**SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA**

Hona gure lehen desioa gizadi guztia minez dagoen uneotan. Zure Aita izena aitortua eta errespetatua izan dadila. Ez dezala inork mespretxatu zure seme-alabei kalte eginez. Ez dezagula galdu Zurekiko konfiantza. Kanporatuak izan daitezela gizatasuna kentzen diguten jainko eta idolo guztien izenak. Banatzen gaituen eta senide izaten uzten ez digun dirua; gure gerrak elikatzen dituen indarkeria; ahulak arbuiatzera garamatzan boterea.

**ETOR BEDI ZURE ERREINUA**

Gure artean Zu bazara errege, justizia , berdintasuna eta bakea nagusituko dira lurrean. Elkarrekin aurre egin ahal izango diegu lurreko arazoei. Anai-arreba gisa elkarturik menderatuko ditugu gizadia penatu lezaketen pandemiak. Aberatsak ez daitezela behartsuen gain nagusitu; herrialde ahaltsuek ez dezatela herrialde ahulez abusatu; gizonek ez ditzatela emakumeak menderatu. Etor bedi zure erreinua eta nagusitu bedi senidetasuna lurrean.

**EGIN BEDI ZURE NAHIA ZERUAN BEZALA LURREAN ERE**

Egin bedi zure nahia, ez gurea. Koronabirusa erakusten ari zaigu dena burutu gabe dagoela lurrean, dena erdizka bizi dugula. Ez dugu ikasi nahi gizakiak hauskorrak eta zauriberak garela, hemen ezin dugula eskuratu barne-barnetik irrikatzen dugun betetasuna. Aita, zure Ontasun hondogabean soilik izan dezakegu uste ona. Ez bedi egin, beraz, guk nahi duguna, geurekoikeriak, kontsumismoak eta gure ongizateak eraginik. Egin bedi Zuk nahi duzuna, guztion ona bilatuko baituzu beti.

**EMAGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA**

Gizadi osoarentzako hain gogorrak diren une hauetan, inork ez dezala ogi faltarik izan. Ez dizugu dirurik eskatzen ez ongizaterik, ez dugu aberastasunik nahi pilatzeko, guztiontzako eguneroko ogia besterik ez. Koronabirusaren pandemia honek betiko oroitaraz diezagula bizitza dela gauza guztietan lehena: goseak daudenek jan ahal izatea; pobreek negar egiteari uztea; migratzaileak eta errefuxiatuak gurean harrera izatea, bizirik iraun eta etxea eduki ahal izan dezaten.

**BARKATU GURE ZORRAK**

Aita, barkatu gure zorrak: gure axolagabekeria, gure sinesgogorkeria, Zugan konfiantza izateko dugun ezkorkeria. Urte hauetan zehar, barrutik asko aldatu gara guztiok. Kritikoagoak bihurtu gara, baina baita sendotasun gutxiagokoak ere. Axolagabeagoak gure ongizatea ez den ororekiko, baina inoiz baino kalteberagoak edozein krisiren aurrean. Ez zaigu erraza gertatzen sinestea, baina zaila gertatu behar zaigu ezertan ez sinestea. Aita, barkaiguzu eta esnatu gure barne-bizitza.

**GUK ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN DIEGUNEZ GERO**

Ikaratuta bizi garen une honetan, heriotzaren muga saihestezinaren aurrean guztiok sentitzen dugun ezinaz jabetu garelarik, guk ere barkatu nahi diogu elkarri, batak besteari. Ez dugu hauspotu nahi inoren aurkako bazterketarik ez erresuminik. Esperientzia latz hau anai-arreba bezala bizi nahi dugu.

**EZ GAITZAZU UTZI TENTALDIAN ERORTZEN**

Ahulak eta mugatuak gara. Orain inoiz baino gehiago ari gara hori bizitzen. Gure bizitzak eta besteenak hondatu ditzaketen erabakiak hartu eta huts egiteko arriskuan aurkitzen gara beti. Horregatik, ez gaitzazu utzi Zu ahazteko eta baztertzeko tentaldian erortzen, Aita. Piztu gugan zure ontasunarekiko konfiantza. Inoiz baino gehiago behar zaitugu. Zuk ireki ditzakezu bideak gutako bakoitzarekin topo egiteko: sinestunekin eta ez sinestunekin, ateoekin edo agnostikoekin. Guztiok senti ahal izan dezagula gure barnean zure indar isila baina eraginkorra.

**BAINA ATERA GAITZAZU GAITZETIK**

Gure hutsegiteen erantzule gara, baina baita biktima ere. Gaitza eta bidegabekeria ez daude gure baitan bakarrik. Egituretan eta erakundeetan ere badaude, politiketan eta erlijioetan ere bai. Horregatik, garrasi batekin amaituko dugu otoitza: Aita, atera gaitzazu gaitzetik! Egun batean beteko da guztiok irrikatzen dugun zorion betea. Lurrean gozatu ditugun ordu alai eta zoriontsuak nahiz bizipen garratzak eta mingotsak; erein dugun maitasuna, justizia eta elkartasuna, baita egin ditugun okerrak eta baldarkeriak… Dena zorion bete bihurtua izango da.

Jada ez da heriotzarik ez minik izango. Inor ez da egongo tristerik, inork ez du negar egin beharko. Hasierako elkarteetako batean egindako idazki kristau batek hitz hauek jartzen ditu Jainkoaren ahotan: "Egarri denari neuk emango diot doan biziaren iturburutik" (Apokalipsia 21, 6). "Doan", alegia, ez gure merituengatik; "bizi-egarri denari", eta zein ez da betiko biziaren egarri? Bakoitzak erabaki behar du nola bizi nahi duen eta nola hil nahi duen. Nik sinesten dut eta uste on dut errealitatearen azken misterioa, batzuek "Jainko" deitzen duguna, beste batzuek "Energia", beste batzuek "Transzendentea" eta beste batzuek "ezer ez", Ontasun Misterio bat dela eta harengan aurkituko dugula guztiok gure izatearen Betea. **AMEN.**

**Jose Antonio Pagola, 2020ko martxoaren 25ean**

# Rezar el padrenuestro en tiempos del coronavirus

La oración del padrenuestro es una oración breve. La única que Jesús dejó en herencia a sus seguidores. Es una oración extraña. La rezan todos los cristianos, pero no habla de Cristo. Se reza en todas las iglesias, pero no se menciona a ninguna iglesia.
Los católicos la pronuncian en la misa del domingo, pero no dice nada de ninguna religión. Como dice J. D. Crossan, es "una oración revolucionaria que proclama una nueva visión de la historia. Se trata de un manifiesto radical y un himno de esperanza en un lenguaje dirigido a toda la tierra".

### PADRE NUESTRO QUE ESTÁS EN LOS CIELOS

Tú eres nuestro Padre, recuerda que todos somos tus hijas e hijas.
Estás en los cielos porque eres de todos. No estás ligado a ningún templo, ni a ningún lugar sagrado de la tierra. No perteneces a un pueblo ni a una raza privilegiada. No eres propiedad de ninguna religión. No eres solo de los buenos. Todos te podemos invocar como Padre.

### SANTIFICADO SEA TU NOMBRE

Es nuestro primer deseo en estos momentos dolorosos para toda la humanidad. Que tu nombre de Padre sea reconocido y respetado. Que nadie lo desprecie haciendo daño a tus hijos e hijas. Que no perdamos nuestra confianza en Ti. Que sean desterrados los nombres de todos los dioses e ídolos que nos deshumanizan. El dinero que nos divide y no nos deja ser hermanos; la violencia que alimenta nuestras guerras; el poder que nos lleva a despreciar a los débiles.

### VENGA TU REINO

Si Tú reinas entre nosotros, reinarán en la tierra la justicia, la igualdad y la paz. Nos podremos enfrentar juntos a los problemas del planeta. Unidos como hermanos y hermanas venceremos a las pandemias que puedan afligir a la humanidad.
Que no reinen los ricos sobre los pobres; que los pueblos poderosos no abusen de los débiles; que los varones no dominen a las mujeres. Que venga tu reino y reine en la tierra la fraternidad.

### HÁGASE TU VOLUNTAD EN LA TIERRA COMO EN EL CIELO

Que se haga tu voluntad y no la nuestra. El coronavirus nos está descubriendo que en la tierra todo está inacabado, todo lo vivimos a medias. No queremos aprender que los humanos somos seres frágiles y vulnerables, que no podemos alcanzar aquí la plenitud que desde lo más hondo de nuestro ser todos anhelamos. Padre, solo podemos confiar en tu Bondad insondable. Que no se haga pues lo que queremos nosotros, movidos por el egoísmo, el consumismo y nuestro bienestar. Que se haga lo que Tú quieres, pues siempre buscarás el bien de todos.

**PERDÓNANOS NUESTRAS DEUDAS**

Padre, perdona nuestras deudas: nuestra indiferencia, nuestra incredulidad, nuestra resistencia a confiar en Ti. A lo largo de estos años, todos hemos cambiado mucho por dentro. Nos hemos hecho más críticos, pero también menos consistentes. Más indiferentes a todo lo que no sea nuestro bienestar, pero más vulnerables que nunca ante cualquier crisis. No nos resulta fácil creer, pero se nos va a hacer difícil no creer en nada. Padre, perdónanos y despierta nuestra vida interior.

**COMO TAMBIÉN NOSOTROS PERDONAMOS A NUESTROS DEUDORES**

En estos momentos en que vivimos sobrecogidos al descubrir la impotencia que todos sentimos ante ese límite inevitable de la muerte, también nosotros queremos perdonarnos mutuamente, unos a otros. No queremos alimentar ni rechazos ni resentimientos contra nadie. Queremos vivir esta dura experiencia como hermanas y hermanos.

**NO NOS DEJES CAER EN LA TENTACIÓN**

Somos débiles y limitados. Lo estamos experimentando ahora más que nunca. Estamos siempre expuestos a tomar decisiones y cometer errores que pueden arruinar nuestra vida y la de otros. Por eso, no nos dejes caer en la tentación de olvidarte y rechazarte a Ti, Padre. Despierta en nosotros la confianza en tu bondad. Te necesitamos más que nunca. Tú puedes abrir caminos para encontrarte con cada uno de nosotros: creyentes y no creyentes, ateos o agnósticos. Que todos podamos sentir tu fuerza callada pero eficaz en nuestro interior.

**Y LÍBRANOS DEL MAL**

Somos responsables de nuestros errores, pero también víctimas. El mal y la injusticia no están solo en nuestras personas. Están también en las estructuras y las instituciones, en las políticas y las religiones. Por eso, terminamos nuestra oración con un grito: ¡Padre, arráncanos del mal! Un día, esa felicidad plena que todos anhelamos se hará realidad. Las horas alegres y dichosas que hemos disfrutado en la tierra y también las experiencias amargas y dolorosas que hemos vivido; el amor, la justicia y la solidaridad que hemos sembrado, y también los errores y torpezas que hemos cometido… Todo será transformado en felicidad plena.

Ya no habrá muerte ni dolor. Nadie estará triste, nadie tendrá que llorar. Un texto cristiano escrito en una de las primeras comunidades pone en boca de Dios estas palabras: “Al que tenga sed, yo le daré gratis del manantial de la vida” (Apocalipsis 21,6). “Gratis”, es decir no por nuestros méritos; “al que tenga sed de vida”, ¿y quién no tiene sed de vida eterna? Cada uno ha de decidir cómo quiere vivir y cómo quiere morir. Yo creo y confío en que el misterio último de la realidad, que algunos llamamos “Dios”, otros “Energía”, otros “lo Trascendente” y otros “nada”, es un Misterio de Bondad en el que todos encontraremos la Plenitud de nuestra existencia. **AMÉN.**

**José Antonio Pagola, 25 marzo 2020**